

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

158/2022 Foru Agindua, ekainaren 14koa. Onestea Arabako Lurralde Historikoko eskola kiroleko kanpaina 2022-2023 ikasturterako

Euskal Autonomia Erkidegoko Kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legea eta Eskola Kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretua dira lege esparrua foru aldundietako organo eskudunek egin ditzaten nork bere lurralde historikoko eskola kiroleko urteko programak.

Arabako Foru Aldundiaren eremuan, kirol arloko eskumena duen sailak bere gain hartzen du eskola kiroleko programak egin, onartu eta gauzatzea, Arabako Lurralde Historikoko Eskola Kirolari buruzko urriaren 28ko 21/2020 Foru Arauaren 5.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz, eta aipatutako saileko foru diputatuari dagokio lehenengo azken xedapenean ematen zaion gaikuntza horren indarrez horiek garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko eskumena.

Aipatutako manuei atxikiz, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren otsailaren 19ko 50/2021 Foru Aginduaren bidez, indarreko idazkeran, onespina eman zitzaion Arabako Lurralde Historikoko eskola kiroleko programak arautzen dituen araudiari. Foru agindu horrek eskola kiroleko kanpaina bakoitza urtero onesteko beharra jasotzen du bere artikuluetan.

Aurreko guztiaren arabera, beharrezkoa da, une honetan, Arabako Lurralde Historikoko eskola kiroleko kanpaina onestea 2022-2023 ikasturterako.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Kategoriak, jaiotze urtea eta aplikazio eremuak

Hauk dira 2022ko irailaren 1etik 2023ko abuztuaren 31ra arte eskola kiroleko kanpaina osatuko duten kategoriak:

KATEGORIA	JAIOTZE URTEA	IKASTURTEA	APLIKAZIO EREMUAK
Benjaminurrekoak (1. urtea)	2016	Lehen Hezkuntzako 1.a	Tokikoa
Benjaminurrekoak (2. urtea)	2015	Lehen Hezkuntzako 2.a	Tokikoa
Benjaminak (1. urtea)	2014	Lehen Hezkuntzako 3.a	Lurraldekoa
Benjaminak (2. urtea)	2013	Lehen Hezkuntzako 4.a	Lurraldekoa
Kimuak (1. urtea)	2012	Lehen Hezkuntzako 5.a	Lurraldea/Erkidegoa
Kimuak (2. urtea)	2011	Lehen Hezkuntzako 6.a	Lurraldea/Erkidegoa
Haurrak (1. urtea)	2010	DBHko 1.a	Lurraldea/Erkidegoa/Estatua
Haurrak (2. urtea)	2009	DBHko 2.a	Lurraldea/Erkidegoa/Estatua
Kadeteak (1. urtea)	2008	DBHko 3.a	Lurraldea/Erkidegoa/Estatua
Kadeteak (2. urtea)	2007	DBHko 4.a	Lurraldea/Erkidegoa/Estatua

Bigarrena. Eskola kiroleko programa barruko jarduerak

1. Eskola kiroleko programan sartutako jarduerak Arabako Foru Aldundiak eskainitakoak izango dira, foru agindu honen I. eranskinean jasotakoak.

2. Arabako Foru Aldundiak eskainitako eskola kiroleko programako jardueretan parte hartuko da, Arabako Lurralde Historikoko eskola kiroleko programak arautzen dituen araudia onesten duen otsailaren 19ko 50/2021 Foru Aginduan jasotakoarekin bat etorritik, eta dagokion izen

ematea eginez hasiko da, aipatutako foru aginduaren IV. tituluan deskribatutako izapideen arabera, eta aurreko xedapen zatian aipatutako kategoriak, adinak eta aplikazio eremuak kontuan hartuta. Entitateen zein parte hartuko duten pertsonen izen emateak otsailaren 19ko 50/2021 Foru Aginduaren III. eta IV. eranskinetan jasotako ereduaren arabera egingo dira. Eredu horiek eskola kiroleko aplikazio informatikoaren bidez (CUDE) eskuratu daitezke: <http://www.araba.eus/DeporteEscolar>.

3. Aurrekoa gorabehera, modalitateak/diziplinak ez badu behar beste parte hartzaile, edo behar bezala justifikatutako beste arrazoi batzuk direla-eta jarduerak ezin badira egin, ebazpen honen 1. xedapen zatian jasotako lurralde mugak eta kategoriak aldatu ahal izango dira, erakunde interesdunak alde aurretik eskatu eta Arabako Foru Aldundiak onetsi ondoren, otsailaren 19ko 50/2021 Foru Aginduaren VII. tituluan aurreikusitakoarekin bat etorritik.

Hirugarrena. Eskola kiroleko programan sartzen ez diren jarduerak

1. Euskal Autonomia Erkidegoko foru aldundietako eta haien erakunde laguntzaileen eskola kiroleko programetan sartzen ez diren kirol jardueretan parte hartu ahal izango da -eskaintako modalitate/diziplina bakoitzaren egutegi ofizialetik kanpokoak- baldin eta 1. xedapen zatian eskola kirolaren kategoria bakoitzerako deskribatutako lurralde eremuak errespetatzen badira.

Xedapen zati honetan jasotako jardueretan parte hartzeko eskaera otsailaren 19ko 50/2021 Foru Aginduaren VI. eranskinean jasotako ereduaren arabera egingo da. Baimena emateko, aipatutako foru aginduaren VII. tituluan deskribatutako prozedurari jarraituko zaio.

2. Xedapen zati honetako aurreko apartatuan ezarritako lurralde eremua gorabehera, Arabako Lurralde Historikotik kanpo eskola kiroleko programan sartuta ez dauden jardueretan parte hartzeko baimena emango zaie kategoria gutzietan, kirol modalitate/diziplina hauetan:

- Izotz hockeya.
- Irristaketa artistikoa.
- Izotz gaineko irristaketa artistikoa.
- Errugbia.
- Bela.
- Waterpolo.
- Orientazioa.
- Triatloia.

Era berean, eskola lizentzia duten autonomia erkidegoetako eta estatuko txapelketa ofizialetara (horiek antolatzeko eskumena duten federazioen egutegiaren barruan daudenak) joatea baimenduko da honako kategoria eta modalitate/diziplina hauetan:

- Gimnasia: Euskadiko eta Espainiako oinarriko txapelketa: 2. urteko benjaminak eta 1. urteko kimuak.
- Judoa: Espainiako Kopa eskola lizentziarekin.
- Taekwondo: Arabako federazioaren teknifikazio programan izena emanda dauden kimu kategoriako 2. urtetik aurrerako ikasleak.
- Karatea: Arabako federazioaren teknifikazio programan izena emanda dauden kimu kategoriako 2. urtetik aurrerako ikasleak.

3. Erakundeek eskola kiroleko programatik kanpoko jarduerak antolatu ahal izango dituzte, foru agindu honen 1. xedapen zatian adierazitako lurralde eremuak errespetatuz gero. Eskaera otsailaren 19ko 50/2021 Foru Aginduaren VI. eranskinean jasotako ereduaren arabera egingo da. Baimena emateko, aipatutako foru aginduaren VII. tituluan deskribatutako prozedurari jarraituko zaio.

Aurrekoa gorabehera, modalitateak/diziplinak ez badu behar beste parte hartzaile, edo behar bezala justifikatutako beste arrazoi batzuk direla-eta jarduerak ezin badira egin, eskola kiroleko programaren barruan sartuta ez dauden jarduerak antolatzeko aurreikusitako lurralde mugak eta kategoriak aldatu ahal izango dira, erakunde interesdunak alde aurretik eskatu eta Arabako Foru Aldundiak onetsi ondoren, otsailaren 19ko 50/2021 Foru Aginduaren VII. tituluan jasotakoarekin bat etorritik, partaidetza handitzeko helburuarekin.

Eskola kirolaren programan izena emandako erakundeek eskola kirolaren aplikazio informatikoaren bidez (CUDE) egingo dute eskaera, eta izena eman ez dutenek otsailaren 19ko 50/2021 Foru Aginduaren bidez onetsitako VI. eranskina erabiliko dute.

4. Bizkaiko eta Gipuzkoako erakundeek edo kirolariek kimu eta haur kategoriako jardueretan parte hartu ahal izango dute, baldin eta dagokion foru aldundiaren baimena badute.

5. Inskripzioak aurkezteko epea amaitutakoan, erakunde antolatzaileak kirolari parte hartzaileen zerrenda bidaliko dio Arabako Foru Aldundiko kirol arloko sail eskudunari.

Laugarrena. Programaren iraupena

Foru agindu honetan jasotzen den eskola kiroleko programa 2022ko irailaren 1etik 2023ko ekainaren 18ra bitartean garatuko da.

Dena dela, Arabako Foru Aldundiko kirol arloko sail eskudunak jarduerak baimendu edo antolatuko ahal izango ditu jasotako hasiera eta amaiera data desberdinetan.

Bosgarrena. Egun baliogabeak

Foru agindu honek jasotzen duen eskola kirolaren programa indarrean dagoen bitartean, ez dira egun baliogabeak izango honako hauek:

- 2022ko urriaren 12a.
- 2022ko urriaren 29tik azaroaren 1era.
- 2022ko abenduaren 3tik 8ra.
- 2022ko abenduaren 24tik 2023ko urtarrilaren 8ra (Gabonetako oporrak).
- 2023ko apirilaren 6tik 16ra (Aste Santuko oporrak).
- 2023ko apirilaren 28tik maiatzaren 1era.

Ondorio horietarako, egun horiek ez dira lehiaketa aldikoak izango Arabako Foru Aldundiaren eskola kirolaren programaren barruan.

Hala ere, egoera berezietan, kirolaren arloan eskumena duen sailak baimena eman ahal izango du lehiaketak jartzeko baliogabe ez diren egunetako batean.

Seigarrena. Baimenak

Ez da baimenik eskatu behar programako egun ez baliogabean parte hartzeko, ez eta programatik kanpoko egunetan parte hartzeko ere, ebazpen honen laugarren xedapen zatian zehaztutakoaren arabera.

Zazpigarrena. Parte hartzeko ibilbideko jardueren iraupena

1. Kirol hastapeneko, jolas eta kirol-kulturako jarduerak 2022ko irailaren 26tik 2023ko ekainaren 18ra bitartean egingo dira.

2. Partaidetza ibilbideko lehiaketetako jardueren iraupena honako kategorian hauen arabera ezartzen da:

– Benjaminurreko eta benjaminen kategorian: jarduerak egiteko lehen egun baliogabea 2022ko urriaren 15a izango da, eta azkena 2023ko maiatzaren 28a.

– Kimuen kategoria: jarduerak egiteko lehen egun balioduna 2022ko irailaren 24a izango da, eta azkena 2023ko maiatzaren 28a.

– Haurren kategoria: jarduerak egiteko lehen egun balioduna 2022ko irailaren 17a izango da, eta azkena 2023ko maiatzaren 21a. Euskadiko eskola jokoetan izango den Arabako ordezkaria erabaki behar den lehiaketetarako, lehiaketa 2023ko maiatzaren 21ean amaitu beharko da.

– Kadete kategoria: jarduerak egiteko lehen egun balioduna 2022ko irailaren 17a izango da, eta azkena 2023ko maiatzaren 28a.

Hala ere, egoera berezietan, kirolaren arloan eskumena duen sailak baimena eman ahal izango du xedapen zati honetan finkatutako datak aldatzeko.

Zortzigarrena. Errendimendu hastapeneko ibilbideko jardueren iraupena.

Errendimendu hastapeneko ibilbideko lehiaketa jarduerak ezin izango dira 2022ko irailaren 24a baino lehen hasi ez 2023ko maiatzaren 21a baino beranduago amaitu.

Hala ere, egoera berezietan, kirolaren arloan eskumena duen sailak baimena eman ahal izango du data horiek aldatzeko.

Bederatzigarrena. Lehiaketen ordutegia

Herrien arteko joan-etorria beharrezkoa den lehiaketa kolektiboetan, partidak 9:30etik 13:00etara bitartean jokatu beharko dira.

Hamargarrena. Proiektua entregatzea

1. Otsailaren 19ko 50/2021 Foru Aginduaren 15. artikuluan jasotako A eta B jarduera anitzeko jardueretan taldeak inskribatzen dituzten erakundeek proiektu bat aurkeztu beharko dute jarduera hasi aurretik, foru agindu horretan onetsitako ereduaren arabera. Proiektu horretan talde bakoitzarekin garatzen diren plangintzari eta edukiei buruzko datu guztiak eskatuko dira.

Aipatutako dokumentua behar bezala beteta entregatzen ez duten entitateei ez zaizkie baliotzatuko taldeak.

2. Otsailaren 19ko 50/2021 Foru Aginduaren 16. artikuluan azaldutako jolas jardueretan eta musika erritmoan oinarrituta taldeak inskribatzen dituzten erakundeek proiektu bat aurkeztu beharko dute, II. eranskinean onetsitako ereduaren arabera, adin talde horiekin egin beharreko jarduerak zehaztuta.

Hamaikagarrena. Irabazteko xederik gabeko entitateen joan-etorriak

Irabazteko xederik gabeko erakundeen joan-etorriak eskola kirolaren araudia onesten duen otsailaren 19ko 50/2021 Foru Aginduaren VI. tituluan ezarritakoaren arabera egingo dira, eta joan-etorri horiek egiteko eskabidea aurkeztu beharko da, foru agindu horren III. eranskinean onetsitako ereduaren arabera.

Hamabigarrena. Federazio lizentziak baimentzea

1. Federazio lizentziak izapidetzeko baimena emango da, pertsona edo erakunde interesdunak alde aurretik eskatuta, eskola kirolaren araudia onesten duen otsailaren 19ko 50/2021 Foru Aginduaren IV. eranskinean jasotako ereduaren arabera. Baimena emateko, aipatutako foru aginduaren VII. tituluan deskribatutako prozedurari jarraituko zaio.

2. Edonola ere, lurraldean dagoen kategoria federatua baino beheragoko kategoriako azken urteko ikasleei izapidetu eta jaulkiko zaizkie honako kasu hauetan:

- Talde kirolak: 2. urteko haur kategoriakoak, waterpoloak izan ezik. Waterpoloan haur eta kimu kategoriakoei baimenduko zaie.

- Banakako kirolak: 2. urteko kimu kategoriakoak:

- Gizonezkoak: 2. urteko haur kategoriakoak.
 - Emakumezkoak: 1. urteko haur kategoriakoak.
 - Eskola kiroleko programarik ez duten modalitateak/diziplinak edozein eskola kategoriatan baimenduko dira, benjaminurreko kategorian izan ezik.
3. Lizentzia federatua emateak eskola lizentzia baliogabetzea ekarriko du. Hala ere, eta bera-riaz adierazita, bi lizentzien indarraldiari eutsi ahal izango zaio honako kasu hauetan:
- Atletismoa: 2. urteko haur kategoriakoak, Espainiako txapelketan parte hartzeko nahitaezko den gutxieneko marka lortzeko.
 - Eskrima:
 - 2. urteko kimu kategoriakoak: gehienez 3 lehiaketatarako.
 - Haur eta kadete kategoriakoak: gehienez 4 lehiaketatarako.
 - Mendia: eskola kategorია guztiak, benjaminurreko kategoría izan ezik, Arabako Mendizale Federazioak alde zuzenetik eskatuta.
 - Borroka: haur eta kadete kategoriak.

Hamahirugarrena. Baldintzak onartzea

1. Eskola kiroleko kanpainan izena ematen duten entitate guztiek nahitaez onartu beharko dituzte foru agindu honetan ezarritako baldintzak, bai eta beste hauetan ezarritakoak ere: Arabako Lurralde Historikoko eskola kirolaren araudia onesten duen otsailaren 19ko 50/2021 Foru Agindua, Eskola Kirolaren uztailaren 1eko 125/2008 Dekretua, Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legea eta aplikatzekoa izan daitezkeen beste edozein araudi. Halaber, onartu beharko dute kirol arloko eskumena duen sailak onetsitako proiektua edo programa ikuskatzeko, jarraitzeko eta egiaztatzeko izendatzen dituen pertsonak bertan izatea.

2. Erakunde parte hartzaileek beren gain hartzen dute indarrean dagoen araudia betetzeko erantzukizuna, bai eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren eta kirolaren arloan eskumena duen sailaren prebentzio neurriak eta gomendioak betetzekoa ere, COVID-19a dela eta 2022ko irailaren 1etik 2023ko abuztuaren 31ra bitartean gerta daitezkeen egoerei dagokienez.

Hamalagarrena. 2022-2023 denboraldiko jardueren katalogoa

Arabako Lurralde Historikoko eskola kirolaren araudia onesten duen otsailaren 19ko 50/2021 Foru Aginduaren I. eranskinean jasotakoarekin bat etorritik, 2022-2023 denboraldiko jardueren katalogoa foru agindu honen I. eranskinean adierazitakoa izango da.

Hamabosgarrena. Foru agindu honek 2022ko irailaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 14a

Kultura eta Kirol Saileko diputatua
ANA M. DEL VAL SANCHO

Kirol zuzendaria
ANA ROSA LÓPEZ DE URALDE GÓMEZ



ESKOLA KIROLA - DEPORTE ESCOLAR
2022-2023



PARTE HARTZEKO IBILBIDEA **ITINERARIO DE PARTICIPACION**
PARTE HARTZEKO LEHIAKETAK **COMPETICIONES DE PARTICIPACION**

KIROL MODALITATEA	KATEGORIAK*	IZEN EMATEA	JOKALARIEN KOPURUA	LEHIAKETA HASIERA
MODALIDAD DEPORTIVA	CATEGORIAS*	Azken eguna Inscripción Fecha límite	Guidatzen / Gehienez Nº JUGADORES Mínimo / Máximo	COMIENZO COMPETICIÓN
XAKEA	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea	02/11/2022	Libre	2022ko AZAROA
AJEDREZ	Benjamin-Alevis-Infantil Kadete			NOVIEMBRE 2022
ATLETISMO	Benjamina-Kimua-Haurra	24/10/2022	Libre	2022ko URRIA
ATLETISMO	Benjamin-Alevis-Infantil			OCTUBRE 2022
BADMINTON	Benjamin-Alevis-Infantil Kadete	14/10/2022	Libre	2022ko URRIA
BADMINTON	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea			OCTUBRE 2022
3x3ko SASKIBALDIA	Benjamina	09/10/2022	6 / libre	2022ko URRIA
BALONCESTO 3x3	Benjamin			OCTUBRE 2022
SASKIBALDIA	Kimua-Haurra-Kadetea	Kimua/Alevis: 10/10/2022	8 / 15	2022ko URRIA
BALONCESTO	Alevis-Infantil Kadete	Haurra/Infantil-Kadetea/Cadete: 03/10/2022		OCTUBRE 2022
ESKUBALDIA	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea	Benjaminak/Benjamin-Kimua/Alevis-	5 / 16 (Ben.)	2022ko URRIA
BALONMANO	Benjamin-Alevis-Infantil Kadete	Haurra/Infantil: 16/11/2022	8 / 18 (Gainerakoak / Resto)	OCTUBRE 2022
BEISBOLA ETA SOFBOLA	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea	Benjaminak/Benjamin-Kimua/Alevis-	Libre	ZEHAZTEKO
BEISBOL Y SOFBOL	Benjamin-Alevis-Infantil Kadete	Haurra/Infantil: 16/11/2022		A DETERMINAR
BILARRA	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea	28/11/2022	Libre	ZEHAZTEKO
BILLAR	Benjamin-Alevis-Infantil Kadete			A DETERMINAR
ARABAKO BOLAJOKEA	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea	28/11/2022	Libre	ZEHAZTEKO
BOLA JOKEAK	Benjamin-Alevis-Infantil Kadete			A DETERMINAR
LAUDIOKO BOLAJOKEA	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea	28/11/2022	Libre	ZEHAZTEKO
BOLAJOKEA LAUDIOKO	Benjamin-Alevis-Infantil Kadete			A DETERMINAR
BOXEOA	Haurra-Kadetea	14/10/2022	Libre	2022ko URRIA
BOXEO	Infantil Kadete			OCTUBRE 2022
TXARRINDULARITZA	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea	17/02/2023	Libre	ZEHAZTEKO
OCLISMO	Benjamin-Alevis-Infantil Kadete			A DETERMINAR
KIROL EGOKITUA	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea	28/11/2022	Libre	ZEHAZTEKO
DEPORTE ADAPTADO	Benjamin-Alevis-Infantil Kadete			A DETERMINAR
ESGRIMA	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea	28/11/2022	Libre	ZEHAZTEKO
ARETO FUTBOLA	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea	07/10/2022	8 / 12	22ko URRIA
FUTBOL SALA	Benjamin-Alevis-Infantil Kadete			OCTUBRE 2022
8ko FUTBOLA	Benjaminak-Kimua	21/09/2022	10 / 18	22ko URRIA
FUTBOL 8	Benjamin 2º año Alevis			OCTUBRE 2022
2. URTEKO KIMUEN 8ko FUTBOLA	Alevis 2º año (2008)	21/09/2022	10 / 18	22ko URRIA
FUTBOL 8 ALEVIS 2º AÑO	Benjaminak			OCTUBRE 2022
NESKEN 5eko FUTBOLA	Benjaminak-Benjamin	07/10/2022	8 / 12	22ko URRIA
FUTBOL 5 FEMENINO				OCTUBRE 2022
NESKEN 8ko FUTBOLA	Kimua / Haurra	07/10/2022	10 / 18	22ko URRIA
FUTBOL 8 FEMENINO	Alevis / Infantil			OCTUBRE 2022
NESKEN 11ko FUTBOLA	2. urteko Haurra-Kadetea	07/10/2022	14 / 25	22ko URRIA
FUTBOL 11 FEMENINO	Infantil 2º+Kadete			OCTUBRE 2022
11ko FUTBOLA	Haurrak	21/09/2022	14 / 25	22ko URRIA
FUTBOL 11	Infantil			OCTUBRE 2021
11ko FUTBOLA-Errendimendua	Haurrak	21/09/2022	14 / 25	22ko URRIA
FUTBOL 11-Rendimendua	Infantil			OCTUBRE 2022
GINASTIKA ERITIMIKOA	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea	02/11/2022	Libre	22ko AZAROA
GINASTIKA RITMICA	Benjamin-Alevis-Infantil Kadete			NOVIEMBRE 2022
GINASTIKA ARTISTIKOA				
GINASTIKA ARTISTICA				
GINASTIKA-KIROL AEROBIKA				
GINASTIKA-AEROBIC DEPORTIVO				
GOLFA	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea	28/11/2022	Libre	ZEHAZTEKO
GOLF	Benjamin-Alevis-Infantil Kadete			A DETERMINAR
HALTEROFILIA	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea	28/11/2022	Libre	22ko URRIA
	Benjamin-Alevis-Infantil Kadete			OCTUBRE 2022
HERRI KIROLAK	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea	28/11/2022	Libre	ZEHAZTEKO
	Benjamin-Alevis-Infantil Kadete			A DETERMINAR
IZOTZ HOCKEYA	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea	28/11/2022	Libre	ZEHAZTEKO
HOCKEY HIELO	Benjamin-Alevis-Infantil Kadete			A DETERMINAR
ARETO HOCKEYA	Benjamina-Kimua-Haurra	28/11/2022	5 / 9 (Benj.)	ZEHAZTEKO
HOCKEY SALA	Benjamin-Alevis-Infantil Kadete		7 / 13 (Kimua-Haurra)	A DETERMINAR
BELAR HOCKEYA	Benjamina-Kimua-Haurra	28/11/2022	5 / 9 (Benj.)	ZEHAZTEKO
HOCKEY HIERBA	Benjamin-Alevis-Infantil		7 / 13 (Kimua-Alevis)	A DETERMINAR
			13 / 18 (Haurra-Infantil)	
KARATEA	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea	28/11/2022	Libre	ZEHAZTEKO
KARATE	Benjamin-Alevis-Infantil Kadete			A DETERMINAR
BARRIKADA	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea	28/11/2022	Libre	ZEHAZTEKO
LUCHA	Benjamin-Alevis-Infantil Kadete			A DETERMINAR
JUDO	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea	28/11/2022	Libre	ZEHAZTEKO
JUDO	Benjamin-Alevis-Infantil Kadete			A DETERMINAR
IGERIKETA	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea	14/10/2022	Libre	ZEHAZTEKO
NATACION	Benjamin-Alevis-Infantil Kadete			A DETERMINAR
IGERIKETA SINKRONIZATUA	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea	14/10/2022	Libre	ZEHAZTEKO
NATACION SINCROZIZADA	Benjamin-Alevis-Infantil Kadete			A DETERMINAR
ORIENTAZIOA	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea	28/11/2022	Libre	ZEHAZTEKO
ORIENTACION	Benjamin-Alevis-Infantil Kadete			A DETERMINAR
PADELA	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea	14/10/2022	Libre	22ko URRIA
PADEL	Benjamin-Alevis-Infantil Kadete			OCTUBRE 2022
IZOTZ IRRISTAKETA	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea	28/11/2022	Libre	ZEHAZTEKO
PATINAJE SOBRE HIELO	Benjamin-Alevis-Infantil Kadete			A DETERMINAR
IRRIKETA - ABADURA	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea	28/11/2022	Libre	22ko URRIA
PATINAJE - VELOCIDAD	Benjamin-Alevis-Infantil Kadete			OCTUBRE 2022
IRRIKETA - GURPIL G. ARTISTIKOA	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea	28/11/2022	Libre	22ko URRIA
PATINAJE - ARTISTICO S. RUEDAS	Benjamin-Alevis-Infantil Kadete			OCTUBRE 2022
IRRIKETA - HOCKEYA	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea	14/10/2022	Libre	22ko URRIA
PATINAJE - HOCKEY	Benjamin-Alevis-Infantil Kadete			OCTUBRE 2022
EUSKAL PILOTA - ESKUZ	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea	24/10/2022	Libre	ZEHAZTEKO
PELOTA VASCA - MANO	Benjamin-Alevis-Infantil Kadete			A DETERMINAR
EUSKAL PILOTA - PALA	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea	24/10/2022	Libre	ZEHAZTEKO
PELOTA VASCA - PALA	Benjamin-Alevis-Infantil Kadete			A DETERMINAR
EUSKAL PILOTA - ZESTIA PUNTA	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea	14/10/2022	Libre	22ko URRIA
PELOTA VASCA - CESTIA PUNTA	Benjamin-Alevis-Infantil Kadete			OCTUBRE 2022
ERRUGBI	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea	14/10/2022	Libre	ZEHAZTEKO
RUGBY	Benjamin-Alevis-Infantil Kadete			A DETERMINAR
SQUASH	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea	30/09/2022	Libre	22ko URRIA
SQUASH	Benjamin-Alevis-Infantil Kadete			OCTUBRE 2022
TAEKWONDO	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea	14/10/2022	Libre	22ko URRIA
TAEKWONDO	Benjamin-Alevis-Infantil Kadete			OCTUBRE 2022
TENISA	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea	14/10/2022	Libre	22ko URRIA
TENIS	Benjamin-Alevis-Infantil Kadete			OCTUBRE 2022
MANA TENISA	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea	21/10/2022	Libre	22ko AZAROA
TENIS DE MESA	Benjamin-Alevis-Infantil Kadete			NOVIEMBRE 2022
ARKU TIRUA	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea	30/09/2022	Libre	22ko URRIA
TIRO CON ARCO	Benjamin-Alevis-Infantil Kadete			OCTUBRE 2022
TIRO OLINPIKOA	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea	28/11/2022	Libre	22ko URRIA
TIRO OLIMPICO	Benjamin-Alevis-Infantil Kadete			OCTUBRE 2022
TRATLOA	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea	28/11/2022	Libre	ZEHAZTEKO
TRATLON	Benjamin-Alevis-Infantil Kadete			A DETERMINAR
BELA	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea	14/10/2022	Libre	22ko URRIA
VELA	Benjamin-Alevis-Infantil Kadete			OCTUBRE 2022
ARETOKO BOLEBOLA	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea	07/10/2022	6 / 8 (Benj.-Kimua/Alevis)	22ko URRIA
VOLEIBOL PISTA	Benjamin-Alevis-Infantil Kadete		8 / 14 (Haurra/Infantil-Kadetea)	OCTUBRE 2022
HONDIARRIZAKO BOLEBOLA	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea	14/04/2023	gutx. / min. - 3	2022ko ABRILA
VOLEY PLAYA	Benjamin-Alevis-Infantil Kadete			ABRIL 2022
PIRAGUISMOA	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea	14/10/2022	Libre	ZEHAZTEKO
WATERPOLA	Benjamin-Alevis-Infantil Kadete			A DETERMINAR
WATERFOLDO	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea	14/10/2022	Libre	ZEHAZTEKO
WATERFOLDO	Benjamin-Alevis-Infantil Kadete			A DETERMINAR

*Itzadura daukaten kategoriak KATEGORIA ANIXOTZA onartzen dute/ Las categorías sombreadas admiten CATEGORIA MULTIPLE



ESKOLA KIROLA - DEPORTE ESCOLAR
2022-2023



PARTE HARTZEKO IBILBIDEA ITINERARIO DE PARTICIPACIÓN
KIROLETAN HASTEKO JARDUERAK ACTIVIDADES DE INICIACIÓN

KIROL MODALITATEA MODALIDAD DEPORTIVA	KATEGORIAK * CATEGORIAS *	IZEN EMATEA - Azken eguna INSCRIPCIÓN - Fecha límite	ENTITATE SUSTATZAILERAK ENTIDADES PROMOTORAS
KIROL JARDUERA ANITZA "A" MULTIACTIVIDAD DEPORTIVA "A"	Benjaminurrekoak - Benjamin - Kimua Prebenjamin - Benjamin - Alevin	14/10/2022	IKASTETXEAK CENTROS ESCOLARES
KIROL JARDUERA ANITZA "B" MULTIACTIVIDAD DEPORTIVA "B"	Benjaminurrekoak - Benjamin - Kimua Prebenjamin - Benjamin - Alevin	14/10/2022	IKASTETXEAK CENTROS ESCOLARES

KIROL MODALITATEA MODALIDAD DEPORTIVA	KATEGORIAK * CATEGORIAS *	IZEN EMATEA - Azken eguna INSCRIPCIÓN - Fecha límite	ENTITATE SUSTATZAILERAK ENTIDADES PROMOTORAS
XAKEA			
AJEDREZ			
ATLETISMOA			
ATLETISMO			
BADMINTONA			
BADMINTON			
SASKIBALDIA			
BALONCESTO			
ESKIBALDIA			
BALONMANO			
BEISBOLA ETA SOFBOLA			
BEISBOL Y SOFBOL			
BILARRA			
BILAR			
ARABAKO BOLAJOKOA			
BOLO ALAVES			
LAUDIOKO BOLATOKIA			
BOLATOKI LAUDIO			
BOXEOKA			
BOXEO			
TXIRINDULARITZA**			
CICLISMO**			
CURLINGA			
CURLING			
ESKALADA			
ESCALADA			
ESGRIMA			
FUTBOLA			
FUTBOL			
GIMNASIA ERITIMIKOA			
GIMNASIA RITMICA			
GIMNASIA ARTISTIKOA			
GIMNASIA ARTISTICA			
GIMNASIA - KIROL AEROBIKA			
GIMNASIA - AEROBIC DEPORTIVO			
GOLFA			
GOLF			
HALTEROFILIA			
HERRI KIROLAK			
HIPIKA			
HÍPIKA			
BELAR HOCKEYA			
HOCKEY HIERBA			
ARETO HOCKEYA			
HOCKEY SALA			
IZOTZ HOCKEYA			
HOCKEY HIELO			
KARATEA			
KARATE			
BORROROKA			
LUCHA			
JUDO			
JUDO			
IGERIKETA			
NATACIÓN			
IGERIKETA SINKRONIZATUA			
NATACION SINCROIZADA			
ORIENTAZIOA			
ORIENTACION			
PADELA			
PADEL			
IRRISTAKETA			
PATINAJE			
IZOTZ GANERKO IRRISTAKETA			
PATINAJE SOBRE HIELO			
EUSKAL PILOTA			
PELOTA VASCA			
PIRAGUISMOA			
PIRAGUISMO			
ERRUGBIA			
RUGBY			
SQUASHA			
SQUASH			
TAEKWONDOA			
TAEKWONDO			
TENISA			
TENIS			
TRIATLOIA			
TRIATLÓN			
MAMA-TENISA			
TENIS DE MESA			
ARKU TIROA			
TIRO CON ARCO			
BEIA			
VELA			
BOLEBOLA			
VOLEIBOL			
WATERPOLOA			
WATERPOLO			
WUSHUA			
WUSHU			

**Izen ematearen azken eguna / Fecha límite inscripción: 1-04-2023

PARTE HARTZEKO IBILBIDEA ITINERARIO DE PARTICIPACIÓN
JOLASEKO JARDUERAK ACTIVIDADES DE RECREACIÓN

JARDUERA ACTIVIDAD	KATEGORIAK CATEGORIAS	IZEN EMATEA Azken eguna INSCRIPCIÓN Fecha límite	ALDIA PERIODO CURSO ESCOLAR
ARTZIKIROL	Benjaminurrekoak - Benjamin - Kimua - Haurra - Kadetea Prebenjamin - Benjamin - Alevin - Infantil - Cadete	01/04/2023	IKASTURTEA CURSO ESCOLAR
JOLAS ETA MUSIKA ERITIMO JARDUERA ACTIVIDADES LÚDICO RECREATIVAS Y RÍTMICO MUSICALES	Haurra - Kadetea Infantil - Cadete	01/04/2023	IKASTURTEA CURSO ESCOLAR
MENDI MONTAÑA	Benjaminurrekoak - Benjamin - Kimua - Haurra - Kadetea Prebenjamin - Benjamin - Alevin - Infantil - Cadete	IKASTURTEA CURSO ESCOLAR	IKASTURTEA CURSO ESCOLAR
GOALBALL	Benjaminurrekoak - Benjamin - Kimua - Haurra - Kadetea Prebenjamin - Benjamin - Alevin - Infantil - Cadete	IKASTURTEA CURSO ESCOLAR	IKASTURTEA CURSO ESCOLAR


**ESKOLA KIROLA - DEPORTE ESCOLAR
2022-2023**

**ERRENDIMENDUAN HASTEKO IBILBIDEA ITINERARIO DE INICIACIÓN AL RENDIMIENTO
ERRENDIMENDUAN HASTEKO LEHIAKETAK COMPETICIONES DE INICIACIÓN AL RENDIMIENTO**

KIROL MODALITATEA MODALIDAD DEPORTIVA	KATEGORIAK CATEGORÍAS	IZEN EMATEA Azken eguna INSCRIPCIÓN Fecha límite	JOKALARIEN KOPURUA Gutxienezko / Gehienezko Nº JUGADORES Mínimo / Máximo	DENBORALDI HASIERA COMIENZO DE TEMPORADA
ESKU PILOTA PELOTA MANO	2. urteko kimua-Haurra Alevín 2º año-Infantil	PILOTAKO LEHIAKETAN INSKRIBATUTAKO PILOTARIEN 2. FASEKO "A" MULTZOA GRUPO "A" DE LA SEGUNDA FASE DE LOS PELOTARIS INSCRITOS EN PELOTA COMPETICIÓN		
8ko FUTBOLA FÚTBOL 8	2. urteko kimua (2011) Alevín 2º año (2011)	2. URTEKO KIMUEN FÚTBOL 8an INSKRIBATUTAKO TALDEEN 2. FASEKO "A" MULTZOA GRUPO "A" DE LA SEGUNDA FASE DE LOS EQUIPOS INSCRITOS EN FÚTBOL 8 Alevín 2º AÑO		
11ko FUTBOLA FÚTBOL 11	Haurra (2010-2009) Infantil (2010-2009)	INFANTILEN FÚTBOL 11n INSKRIBATUTAKO TALDEEN 2. FASEKO "A" MULTZOA GRUPO "A" DE LA SEGUNDA FASE DE LOS EQUIPOS INSCRITOS EN FÚTBOL 11 INFANTIL		
SASKIBALOIA BALONCESTO	2. urteko kimua-Haurra Alevín 2º año-Infantil	2. URTEKO KIMUEN ETA INFANTILEN SASKIBALOIAN INSKRIBATUTAKO TALDEEN 2. FASEKO "A" MULTZOA GRUPO "A" DE LA SEGUNDA FASE DE LOS EQUIPOS INSCRITOS EN BALONCESTO ALEVÍN 2º AÑO E INFANTIL		

**ERRENDIMENDUAN HASTEKO IBILBIDEA ITINERARIO DE INICIACIÓN AL RENDIMIENTO
TEKNIFIKAZIO JARDUERAK ACTIVIDADES DE TECNIFICACIÓN**

KIROL MODALITATEA MODALIDAD DEPORTIVA	KATEGORIAK CATEGORÍAS
XAKEA	2. urteko kimua-Haurra Alevín 2º año-Infantil
AJEDREZ	2. urteko kimua-Haurra Alevín 2º año-Infantil
ATLETISMOA ATLETISMO	2. urteko kimua-Haurra Alevín 2º año-Infantil
SASKIBALOIA BALONCESTO	2. urteko kimua-Haurra Alevín 2º año-Infantil
ESKUBALOIA BALONMANO	2. urteko Kimua-Haurra-Kadetea Alevín 2º año-Infantil-Cadete
ARETO FUTBOLA FÚTBOL SALA	2. urteko kimua-Haurra-Kadetea Alevín 2º año-Infantil-Cadete
HALTEROFILIA HALTEROFILIA	2. urteko kimua-Haurra-Kadetea Alevín 2º año-Infantil-Cadete
BELAR HOCKEYA HOCKEY HIERBA	2. urteko kimua-Haurra-Kadetea Alevín 2º año-Infantil-Cadete
KARATEA KARATE	2. urteko kimua-Haurra-Kadetea Alevín 2º año-Infantil-Cadete
IGERIKETA NATACIÓN	2. urteko kimua-Haurra Alevín 2º año-Infantil
PADELA PÁDEL	2. urteko kimua-Haurra Alevín 2º año-Infantil
IRRISTAKETA (abiadura eta hockeya) PATINAJE (velocidad y hockey)	2. urteko kimua-Haurra-Kadetea Alevín 2º año-Infantil-Cadete
EUSKAL PILOTA PELOTA VASCA	2. urteko kimua-Haurra-Kadetea Alevín 2º año-Infantil-Cadete
TENISA TENIS	2. urteko kimua-Haurra-Kadetea Alevín 2º año-Infantil-Cadete
MAHAI-TENISA TENIS DE MESA	2. urteko kimua-Haurra-Kadetea Alevín 2º año-Infantil-Cadete
TAEKWONDOA TAEKWONDO	2. urteko kimua-Haurra Alevín 2º año-Infantil
ARKU TIROA TIRO CON ARCO	2. urteko kimua-Haurra-Kadetea Alevín 2º año-Infantil-Cadete